



OINARRIZKO EKINTZAK

Haurrak gure udalekuetan izena emateko, gurasoak gurekin kontaktuan jarri beharko dira. Guk gure udalekuetan zer eskaintzen dugun, ze egunetan egingo dugun lan eta gure ordutegia azalduko genieke gurasoei. Egunero kirol ezberdin bat egingo dugu baina logikoki urtaroen arabera ere joango da hori: udaran ura edo itsasoarekin lotuta dauden kirolak eta jokuak sustatuko ditugu adibidez surfa edo volleybol-a itasoan eta neguan elurrarekin lotuta daudenak: sky-a, snowbord-a, eskalada... Kirol bat egin baino lehenago aurreikusiko dugu zer material beharko ditugun eta non egingo dugun. Udaletxeari tokia eskatuko diogu kirol desberdinak egiteko. Kirol guztiak ezin dira andoainen egin, orduan, Donostira eta inguruko herri batzuetara joan beharko gara. Gure enpresan hiru langile gara, Xabi eta Asierrek kirol goi-maila bat ikasi dute eta Ikerrek CAFYD ikasi du.

Urtean zehar ere udalekuak egingo ditugu, gabonetan, aste santuetan, zubietan eta asteburu batzuetan ere. Gabonetan egun guztiak egingo ditugu lan, jai egunak izan ezik, udan erabili dugun ordutegi berdinarekin, gabonetan ere bai egunero kirol desberdin bat egingo dugu.

Ondoren guk gure inkestaren link-a bidaliko diegu eta betetzean umeak izena emango dute. Inkestak galdera hauei erantzun beharko dituzte: seme-alabaren izen-abizenak, gurasoen izen-abizenak, gurasoen NAN, seme-alabaren NAN, adina, etxebizitzaren posta-kodea, gurasoen bankuko kontu-zenbakia, seme-alabaren osasun-txartela. Ondoren, gurasoei telefono zenbakia eskatuko diegu eta egun batzuk barru deituko diegu esaten ea tokia duen ala ez.



Begirale bakoitza 20 hurren ardurapean egon daiteke, gure udalekuan desgaitasuna duten pertsonak daude eta hauek beste haurrek baino arreta handiagoa behar dute. Udan famili bakoitzari 70€ kobratuko dizkiegu asteen, eta urtean zehar 50€ asteen. Aste oso guztiko udalekuak izango dira neguan, aste santuan eta udaran. Gero eskolen irteeratan eta aste buruetan egun bat osorako edo goiz bat osorako 9€ kobratuko ditugu ume bakoitzeko

Urtean zehar eskolei gure zerbitzua eskaintzeko klaseetan hizketaldiak egingo ditugu edo zuzenki zuzendariarengana edo kordinatzailearengana joango gara harremanetan jartzea. Irteerak eta ekintza ezberdinak egingo ditugu diru gehiago ateratzeko eta enpresaren funtzionamendu on bat bermatzeko.